



## Informazio eta Komunikazio Teknologiak



Gau egun honetan informazio eta komunikazio teknologiak gizartean duten garrantzia nabarmena da. Horregatik, murgil zaitez gurekin kable, ordenagailu, teklatu, monitore, proiektore, mugikor, eta burura datozkizun gadget guztien artean.

### HELBURUAK eta METODOLOGIA

Jakintzagai honetan, ikaslea informatika erabiltzaile aurreratua izatea lortzeaz gain, edukiak sortzen ikasiko du, hala nola, web orriak, mugikorretarako aplikazioak...

Bestalde, ordenagailua babesten eta gailu desberdinekin konektatzen ere ikasiko du (Bluetooth, WIFI, ...) eta dena metodologia guztiz praktikoa erabiliz, egiten ikasiz.

### EDUKIAK

- Google App-s eta ofimatika orokorra aurreratua.
- Sistema eragile desberdinak.
- Web orriak egiteko programak.
- Segurtasun informatikoa.
- Mugikorrerako App-ak sortzeko programak.
- Anima zaitez eta zatoz gurekin. Metodologia guztiz praktikoa da, azalpen txikien bitartez, ikaslea gidatuz, proiektuak burutuz.

## Ekonomia



Ekonomiaren gaia 4 DBHn helburu konkretu bat du, Derrigorrezko ikasketak amaituko dituzten mutil eta neskek, gutxienezko ezagutza izan dezaten egunero erabiltzen ditugun kontzeptu ekonomiko eta finantzieroak.

Horretarako lantzen dira:

- Banku-kontuen mota desberdinak, interesak eta komisioak, txartel mota desberdinak edo egon daitezken finantziario mota desberdinak
- Aurrekontuaren garrantzia: norberarena, enpresarena edo gizarterena: sarrerak, gastuak eta desbideratzeak
- Enpresen diru-sarrera eta kostuen esanahia eta egitura eta irabazien / galeren kalkulua
- Zerga-sistemen garrantzia errenta birbanatzeko. Enpresa eta norbanakoek ezartzen zaizkien zergak bereiztea
- EAEko akordio ekonomikoaren berezitasuna, garrantzia eta esanahia.
- Azkenik datu makroekonomikoekin erlazioz atutako kontzeptuak: langabezia, KPI, BPG, jasagarritasuna, pobrezia, euribor, hipoteka, desjabetzea, etxea ordainean ematea,...

## Marrazketa Artistikoa eta Teknikoa



Gai honetan landuko duzuna oso lagungarria egingo zaizu interesa baduzu Ingeniaritzan, Diseinuan, Arte Ederretan

Errepresentatzeko teknika desberdinak ezagutuko dituzu eta interesatuta bazaude jarraipena izango duzu Batxilergoan, bai Artistikoan bai Teknikoan.

### EDUKIAK

- Geometria laua
- Errepresentazio sistemak
- Teknika grafiko-plastikak
- Irudia (Photoshop...)

### METODOLOGIA:

Metodologia guztiz praktikoa izango da, azalpen txikien bitartez eta lan praktikoen bidez.



## Frantsesa



Ingurua badakizu baina... nork esaten dizu zure etorkizuneko lana Frantzia, Suitza edo Belgikan ez dagoela? Edo Polinesian, Guayanan edo Madagaskarren? Gaur egun, Europan eta munduan ibiltzeko eta lan egiteko, frantsesa ere behar duzu.

Karrera guztientzako osagarri ona da frantsesa; baina filologiak, artea, irakaskuntza, pedagogia, edo kazetaritza egin nahi baduzu, bereziki beharrezkoa.

Frantsesez hitz egiten abiatzeko metodologia komunikatzailea erabiltzen dugu: liburua, aldizkariak, ikus-entzunezkoak, pelikulak, internet, eta irakaslearekiko zein ikasleen arteko elkarrizketa eta antzerkietan oinarritzen gara, eta ahozko hizkuntzari lehentasuna ematen diogu.

Ikasitakoa praktikan jartzeko, Iparraldera eramaten ditugu ikasleak txangoan, hizkuntza benetako testuinguruan erabil dezaten.

## Lan Jarduerari Aplikatutako Zientziak



Izenburuak adierazten duen moduan jakintzagai hau guztiz praktikoa da eta edozein laborategian lan egiteko trebetasuna lortzea da izango da helburu nagusia.

Laborategian egoki lan egitea, antolaketa eta lan-teknikak ezagutzuz, lan-teknika bakoitzerako material espezifiko egokiena hautatuz eta erabiliz, segurtasun- eta higiene-arauak jakinez eta arau horiek betez, saiakuntza ugari kurtsuan zehar egingo dira ( esne/ur-analisiak, aspirinaren sintesia, biodieselaren lorpena... ) eta jarduera horietan sortzen diren hondakin-motak jakitea, horiek kudeatzeko, biltegitratzeko , birziklatzeko edo desagerrarazteko irtenbideak proposatzea.

Ikasgai hau guztiz egokia litzateke etorkizunean euren ikasketak Zientzia -Tecnologia, Medikuntza- Erizaintzako Gradua ...Oinarrizko zein Goi mailako zikloetatik bideratu nahi dituztenentzat.

## Ekintzaitza eta Enpresa Jardueretarako Hastapenak



Gaiaren helburua ikaslea enpresaren mundura hurbiltzea da. Langile moduan baina baita etorkizuneko ekintzaile moduan ere ( autoenplegua)  
Horretarako arlo hauek lantzen dira:

- ✓ Bizitzako erabakiak hartzea eta ulertzea norberaren trebetasunak kontutan izaten. Enplegu, auto-enplegu edo karrera profesionala, bizitza osoko prestakuntza eta ikaskuntzaren ondorioa dela ulertu dezaten.
- ✓ Langileen betebeharrak eta eskubideak jakitea. Gizarte segurantzak egitekoak langilea babesten. Hitzarmen kolektiboa, sindikatua eta gatazka laborala zer diren. Kontratu mota nagusienak
- ✓ Enpresa txiki bateko oinarrizko dokumentazioa , oinarrizko kontabilitate eta zerga-arloko betebeharrak ezagutzeta.
- ✓ Taldeka, enpresa proiektu txiki bat aurrera eramatea hartutako ezagutzak erabilia



## Kultura klasikoa



“Ave Caesar, morituri te salutant “  
esaten zuten gladiadoreek  
borrokatu baino lehen

Nolabait esateko, Mundu Klasikoaren seme-alabak edo ondorengoak gara gu, aitzinako erromatar eta greziar zibilizazioen ondorengoak. Gure gizartean, Europako gizartean, gelditzen diren hizkuntzak (euskera salbuespen bat da, baina, hala ere, latinaren eragina ere jasan zuen), ohiturak, antolakuntza politikoaren ereduak, otorduen antolakuntza eta eguneroko bizimoduarekin zerikusia duten gauza asko Mundu Klasikoan dute jatorria. Orokorrean Mundu Klasikoa aintzinako greziar eta erromatarren munduari esaten zaio.

Nork ez du ezagutzen Romulo eta Remoren historia? Honek azaltzen digu Erromaren sorrera, batzuen ustez Europa batu egin zen lehenengo aldia.

***Ikasgai honekin lortu nahi den helburua da kultura aberastea, hizkuntzak aberastea, erromatar eta greziarrek izan duten eragina ikustea eta baloratzea eta, zentzu horretan, gure gizartea hobeto ulertzea.***

## Musika



Helburu nagusia da ikasleek aurreko urteetan edota musika eskoletan, kontserbatorioetan... ikasitakoa era praktikoa batean garatzea eta plazaratzea.

Ikasleek zenbait musika-lan sortuko dituzte, eta testuinguru desberdinetako musika-proiektuetan parte hartuko dute (musika tresnak jotzen, letrak sortuta, koreografiak sortuz...), talde barruan funtzio desberdinak betetzen, horrela plangintzak egitearekin, koordinazioarekin eta talde-lana ebaluatzearekin lotutako trebetasunak lantzeko.

Horrez gain, arlo teoriko batzuk ere landuko ditugu: Musikako testura desberdinak (homofoniak, polifoniak...); Euskal Herriko Musika tradizionala, Musika beste arte batzuekin duen lotura (zinema, publizitatea...).

Zelan egingo dugu?

- \* Talde lanaren bidez, Musika proiektu desberdinak garatu: koreografiak, kantak,... Ikasleek sortutako proiektu eta ideiei lehentasuna eman eta irakaslearen gidaritzapean garatu.
- \* Ikastetxean eragile bihurtu eta ekitaldi desberdinetan parte hartu: Euskararen Nazioarteko Eguna, Gabon jaia, Gabon postala, Martxoak 8, Aixerrotako Kultura Astea,... eta ikasturtean sortuko diren proiektu berriak.
- \* Gelatik plazara salto egin eta emanaldiak eskeini. Bai zentroan zein Lehen Hezkuntzako ikastetxe desberdinetan emanaldiak eskeini egindako lanarekin. Andra Mari, Geroa, Gobela, Txomin Aresti...
- \* Aditu baten eskutik, Bertsolaritza oinarritzat hartuta, kantuak sortu eta grabatu CD bat argitaratzeko.
- + Teknologia berrien erabilera. Mintegiak duen bloga elikatu egindako proiektuekin, berriak argitaratuz, bideoak eskegiz... Audacity, Adobe Audition eta Cubase programen erabilera ikasi, hauekin kantak sortuko baiditugu.

## Kultura Zientifikoa



Kultura zientifikoa gero eta garrantzi handiagoa du: gizartean, osasunean, ingurunean, etab.

Horregatik modu erraz batean landuko dugu zientzia; adibidez: laborategian esperimentu erraz batzuk egiten, ikerketa zientifiko sinple batzuk sortzen, informazio bilatu modu digitalean...

### EDUKIAK

- Unibertsoa
- Bizi kalitatea
- Aurrerapen teknologikoak eta ingurumenean eragiten duten inpaktua
- Berrikuntza. Material berriak
- Ikerketa-proiektua.



## Filosofia



DBH4ko mailako Filosofiaren helburu nagusia da ikasleengan iritzi kritikorako joera sustatzea. Lehenik ikasiko dugu ezagutzen gure burua eta horretarako Psikologiako gai batzuk ikasiko ditugu: nolakoak gara pertsona, emozioak sentimenduak.... Bigarrenik, inguruzten gaituen mundua ezagutu nahi dugu. Gelara gizartean agertzen diren arazoak ekarriko ditugu, baina garrantzia eman diogu normalean oso gutxitan agertzen diren arazoei. Hori egiteko baliatuko gara institutuan bertan antolatzen den “Cine Invisible” jaialdiaz. Datorren urtean proiektatuko diren filme laburrak eta aurreko urteetan proiektatutakoak ere erabiliko ditugu.

Garrantzia eman diogu ikasleen jarduera aktiboari, beraz klasean antolatutako ekintzetan (debateak, taldeko lanak, banakako iritziak... ) parte hartzea garrantzitsua izango da.

Testu libururik ez da izango, beraz irakasleak ekarriko du informazioa eta zenbaitetan informatika gelara joan beharko dugu informazio bila.

## Teknologia



- LOMCE legeak, Teknologia modalitatezko jakintzagai bezala, “A” ibilbide akademikotik baztertu eta “B” ibilbide aplikatuan) jarri du.

- Banaketa honek ez du kontuan izan, gaur egun Teknologia oinarritzko jakintzagaia dela **ingeniaritza** edo **goi mailako lanbide heziketako moduloa** egitea nahi duten ikasleentzat.

- Ala ere, batxilergoko bidetik aipatutako ikasketak egin nahi duten ikasle hauei gelditzen zaien aukera bakarra, **Teknologia hautazkoen artean aukeratzea da.**

Era praktiko batean eta proiektuen metodoa erabiliz jorratuko ditugun gaiak honakoak izango dira:

1. Elektronika
2. Komunikazioaren teknologia (internet, ordenagailuak, telefonia...)
3. Etxebizitzetako instalazioak
4. Esplorazio eta komunikazio teknikoak(AUTOCAD ordenagailu bidezko marrazketa egiteko programa)
5. Programazioa eta kontrola. Robotika (Arduino)
6. Pneumatika eta hidraulika
7. Teknologia eta gizartea



**Aixerrota BHI**

**HA ZKOAK** *4.DBH*

*2016-2017 ikasturtea*